

Berlin

- Anima zaitetz -esan zuen Andonik- benetan, gauza ez da hain larria.

- Zuk uste?

Andonik irribarre zabala eskaini zion erantzun bakar. Dohai handia zen, irribarre hura: bat batekoa, egizalea, areriorik oldartuenak ere erabat desarmatzeko modukoa, eta aldi berean, haur baten irrinoaren gisa, ezkutupeko maltzurkeria batez modelatutakoa. Ezinezkoa zen horren defentsa zakar eta xarmangarriaren aurrean serio-ski hitz egitea. Arantxak guztiz arrotza den norbait arakatzen den moduan goitik behera aztertzen zuen: adats harroak, begi txikiak, leunak eta tristeak zakur baten antzerakoak, ezpain hargitsuak eta bere irribarrearen piztura hunkigarria. Andoni ia gizon galaia zen, noski, baina Arantxaren ustetan, harrigarriro irrealia ere bai. Bazuen zerbait berezia, berarekin amets egiten zuenean, ez zuen bestek bezalako gizon baten antzera ikusten.

- Ez ba -jarraitu zuen Andonik-, baina gaindituko dugu. Eta gainditzen den oro benetan hain larria ez zelako izaten da. Elgorria bezala.

- Edo nafarrerria -gaineratu zuen Arantxak eta negar egiteko zorian zegoela ezkutatu nahi zuelako ateraldi harekin barre egin zuen.

Andonik barre egin zuen berriro eta garagardoa atera zuen pitxarretik bere edalontzira. Bere barrea ordea ez zen behin ere naturala, beti ere ondoan zeukanaren nondik norakoak aztertzen amaitutakoan nola jokatu ondorioztatu duenaren barrea baizik. Goizean goizo irten ziren hiriarren kale eta monumenturik ezagunenak ikusteko asmoz, eta orain, ilunabar aldera Ku'dammn, bere denda, banketxe eta bulego eraikinengandik mendebaldeko Berlingo kalerik entzutetsuena begi bistaren muga uzten zuen taberna batetako terrazan aurkitzen ziren. Banhoff Zoo, hogeihogeita bost urte lehenago, gazteak zirelarik kanta batean ezaguna bihurtu zen geltokian hasi zuten txangoa. Oroitzen al zen galdetu zion Andonik. Oroituko ez zen bada. Gobernuak gazteria iraultzailearen grinak faltsuztaturiko drogarren bidez zapaltzen ahalegindu zeneko sinboloa. Bestetan ez bezala, Arantxari ez zitzaion irudititu ihesi zebiltzenik, baizik eta jada berreskuratzea ezinezkoa zen zerbait bilatzeko alferrikako aha-

legintzat jo zuen Andonik urte bakoitzean zeuden kalean gida turistikoan aurkitzeko burutzen zituen ahaleginak. Elkarri besarkatuta irten ziren handik, eta egunaren amaieran pasadizo hura oroitzean barregurea etorri zitzaion Arantxari. Bere pentsamentuak Andonirengandik ezkutuan gorde asmoz burua itzuli zuen. Terrazako mahai guztiak hartuta zeuden. Espaloietatik, kalearen albo bietatik, jendetza, estu-estu eginda, ibaiaren emaria bezain astiro mugitzen zen. Bart gauean iritsiak ziren Berlinera, Vienatik.

- Egia esango dizut -ausartu zen Arantxa. Ezinegona antzematen zitzaion aurpegian-. Ez dakit zurekin geratu nahi al dudan. Alde egin behar nukeela deritzot.

Andonik harrিতuta begiratu zion.

- Ez zaitetz tuntuna izan -ziurtasun handia erakutsiz esan nahi zuen Andonik-, noski nirekin geratuko zarela, norekin bestela?

- Nitaz oso ziur zaudela dirudi -zalantza Arantxaren ahotsean ernaltzen zihoan. Zer sentitzen zuen azaldu nahi zion, baina une desegokian ekin ziola pentsatzen hasi zen-. Zergatik zaude beti hain ziur nik egingo dudana? Zergatik erabaki behar duzu zuk nire orde zere komeni zaidan? -poxpoloen bila hasi zen poltsan. Ez zuen haserrea bere buruaz jabe zedin utzi behar, horrek Andoniren menpe errazago uzten baitzuen. Une batez negarrari ekingo ziola pentsatu zuen, eta ez zuen hori nahi. Mahai gainera makurtu eta zigarreta Andoniren pizgailuaz izeki zuen.

- Nora joateko asmoa daukazu ba? -Andonik Arantxaren ahuldadeak igarri balitu bezala galdetu zuen.

- Urde nazkantea -erantzun zion zigarretaren kea bititzeko behar zuen arnasa bailitza irentsiz.

- Ez, ez dut intentzio txarrez esan, ez dakit zer gertatzen zaizun, baina zentzuz jokatuz gero konpondu genezake. Benetan diotsut -betoskoa zimurtu zuen Andonik-, behingoagatik guztiz serio-ski mintzo naiz. Saia gaitetzen arrazoizkoak izaten. Nora joango zinateke ni hemen utzita?

- Agian, etxera. Etxera itzuliko nintzateke, bai -Arantxak bere barnea husteko aukera bat erdikusi zuen.

- Hori ezinezkoa da ordea. Zer egingo zenuke etxera iritsi ondoren, dibortzioaren paperak presatzen hasi? Hori da nahi duzuna?

- Hala -Arantxak bere ezintasuna gehitzen zela ikusten zuen Andoniren aurpegi geroz eta lasaigoaren aurrean- isildu zaitetz eta utz nazazu pakean. Oraindik ez dakit zer egin nahi dudana.

- Orduan, jakinarazi diezaidazu erabakitzen duzunean. Nik ere jakiteko eskubidea baitaukat, ez da beste ezergatik -erantzun zuen Andoni bizkor-. Dibortzia nahi duzu edo ez duzu nahi? Galdera sinplea da. Edo bat edo beste, eta kitto.

- Ez dakit Andoni, horren zaila al da ulertzen? Ez dakit zer egin, entzun? Ez dakit! Eta utz diezaiozu behingoz galdera inozo horiek botatzeari!

- Azkenengo bat mesedez. Zer egin behar dugu haurrarekin? Hori ere kontutan hartu beharko duzu. Zure hausnarketetan haurra kontutan hartzen ariko zara, ezta?

Aitzina hiria bitan banatzen zuen harresia ikustera joan direneko pasadizoa bururatu zaio Arantxari. Harresiaren inguruan pasiran hasi dira, grafittiei

begira. Jendea ikusi dute murru zatiak eramaten. Beharbada Historiako libururen batetan agertuko dira. Burnizko hagak okertuta besterik geratzen ez ziren toki batean Trabant baten hondakinak aurkitu dituzte, inoiz murruaren aurka talka egingdako itxura guztiarekin. "Alle Wege nach Berlin" irakur zitekeen aldamen batetan. Bide guztiak Berlinera pentsatu zuen Arantxak. Malkoek ihes egin zioten ninietatik. Orduan Andonik bere musuzapia luzatu zion.

- Mesedez -xuxurlatu zion ia-, jende guzti honek euskaraz ez dakien arren, ezin dute emakume bat negarrez ikusi eta ezer txarrik pentsatu gabe urrundu -Andonik barre egin zuen.

Arantxa tente jarri zen bere aulkian.

- Besteek zutaz zer pentsatzen duten, besterik ez zaizu axola, ezta?

- Anda, begira, ikusten? Jariora eten zaizu.

- Alemaniera txukunez ere esan dezaket -jarraitu zuen Arantxak-, oraintxe bertan jaiki eta alemaniera errazean esan dezaket: hau da nire senarra eta bere erruz nago negarrez. Nire senarra beste



Ilustrazioa: Xabier Pérezek.

emakumeekin oheratzen da ahal duen guztietan. Eta nik jakiten dudanean, hiriz aldatzen dugu. Toki guztietatik iheska galbiltza beti. Baina nire senarra diruduna da, eta nire bizitza konpontzen du horrek bere ustetan.

- Eta ba al dakizu zer erantzungo lizuketen? Ba amarengandik jasotako alemaniera jatorrez erantzungo lizukete: eta zergatik jarraitzen duzu berarekin? Erantzunik logikoena da- erantzun zuen Andonik ez ahotsean ez eta aurpegi edo gorputzaren keinuetan emoziorik agertu gabe.

- Horixe nahiko zenuke, ezta?

- Ba ez dakit -Andonik- orain arte behin ere ez zitzaidan burutik pasa ere egin.

- Imajinatzeko ere ez zara gai. Elkarrekin horrenbeste denbora eman ondoren jada ez zara utz zaitzakedala pentsatzeko gauza. Eta orain haurdun nagoenez are ziurrago aurkitzen zara zure usteetan, ezta?

- Honetaz hitz egin behar al dugu hemen eta orain?- Andoni. urduritzen hasita.

- Zu gabe ez nukeela bizitzen asmatuko pentsatzen duzu, ez? Tira, esaidazu behingoz behin ere ez zaizula bururatu zutaz nazkatu eta alde egin nezakeenik!

- Ba ez -aitortu zuen Andonik- egia esatea nahi baduzu, behin ere ez zait ba bururatu.

- Oso ondo -lasaitu zen Arantxa- suposa dezagun zurekin batera jarraitzea erabakitzen dudala. Eta orduan zer?

- Nola eta orduan zer? -esan zuen Andonik zora-garriro barre eginez-. Ba orduan elkar ezagutu berriak bagina bezala hasiko ginatke berriro. Ez legoke eragotziko ligukeen arrazoirik. Parisera joan gintezke, maiteminduen hiria omen da. Badut han lagunik.

- Eta zergatik ez etxera?

- Bai noski, zergatik ez?

- Benetan? Nik horrela nahi izanez gero etxera itzuliko al ginatke? -esperantza arrimatu zen Arantxaren ninietara.

- Agian aitaren enpresan hasi ginteke lanean -jarraitu zuen Andonik-, badakizu zereginik ez duten eskuek...

- Txarrena ordea- berriro lehengo seriotasuna berreskuraturik Arantxak, ez baitzekien Andonik esandakoa mehatxu edo olgeta bat bezala hartu; oraindik ere bere menpean jarraitzen zuen, eta katea ez zuen mozteko aukerarik azaltzen- ez

dakidala noiz ari zaren benetan hitz egiten eta noiz txantxetan. Behin ere ez dakit zutaz fida naitekeen edo ez.

Andonik keinu bat egin zion zerbitzariari.

- Nitaz fidatzea beste erremediorik ez daukazu- esan zuen- arriskatu egin beharko duzu.

Kalea gurutzatu eta jendetzaren artean aurrera jo zuten, ibaiaren ezpondatik pasiran. Eguzkia ezkutatzen ari zen eta mendiak, iparraldera, itzal astuneko masak baino ez ziren. Mendiak eta horizontetik ezkutatzeraz zihozazen eta ibaia gauarekin nahasten zen zetaka iluna zirudien. Arantxak ibaia usaindu eta entzun zezakeen, baina ikusi farolek argizatzen zuten puntuetan bakarrik ikus zezakeen. Nahastuta sentitzen zuen bere burua, Andoni bakarrik ez, mundu osoa ere irrealia bailitzan eta bere begien aurrean urtzera baletoz bezala. Gaua dator eta mendiak badoaz.

- Non ezkutatzen dira zuhaitzak eta mendiak iluntzen duenean? -galdetu zuen behin neska koxkorra zenean.

- Lotara joaten dira -erantzun zion sentzainak-, harilko batean bildu eta lo seko hartzen dute.

Zubia zeharkatu zuten, jendetzaren artean beti, eta kale estu batetan sartu ziren, kafetegi, jatetxe eta zinemez mukurruraino. Musika banda baten oihartzunak iritsi zitzaizkien eta euren inguruan, hizkuntzaren silaba trinkoak eta barre algarak entzun zituzten. Aurrerago, kalean barrena, enparantza txiki batera heldu ziren. Ertz batean jende multzo dexentea aurkitzen zen bilduta figura bakarti baten inguruan. Oso gizon zurbil bat zen farolapean, gorputzez oso malats eta gihartsua, praka motzetan, hanketan sandaliak zeramatzala. Zutik zegoen, lasai, sorbaldak erorita, gizon moztaka eta gizen batek, ikusleek osatzen zuten korruan haruntz eta honuntz sendokotearen argazkia zerman kartel bat erakusten zuen bitartean. Farolaren argipean buru soilduak dirdira egiten zuen.

- Zer da? -galdetu zuen ikusminez Arantxak-. Azti bat?

Andonik barre egin zuen.

- Ez -erantzun zion eskua sorbaldatik igarotzen zion bitartean-. Herkules antzeko bat. Ikusi nahi duzu?

- Ez dakit. Behin ere ez naiz egon antzeko ikuskitzun batetan.

- Orain duzu aukera.

Isiltasuna egin zen ikusleen artean eta gizonak bere zereginari ekin zion. Ikaragarrizko zamak

altxatzen zituen bere burutik gora, bularra bihurrituz, giharre zurbilak hantatzen hasi zitzaizkion eta gorputz osoak izerdiaz dirdira egiten zuen. Amaitu zuenean, gizon baxuak kapela iragan zuen jendearen artean, txanpon gutxi batzu bilduz. Indartsua farolaren aurka bermatu zen, arnasestuka. Arantxari zeharo bazterturta iruditu zitzaion argizko zirkulu hartan, bakar-bakarrik eta ia biluzik. Jendeaz ohartzen ez zela zirudien. Atsedean hartzera mugatzen zen, arnasa sakon hartuz, pizti bat bere kaiolan bezain harro. Bereen artean hartu zuen Andoniren eskua.

- Goazen hemendik -esan zion Andonik-, hau oso aspergarria da.

- Itxoin pixkat -eskatu zion Arantxak-, soka horiekin zerbait egin behar du.

Ikusleen artean zeuden bi gizonezko, emazteak utzita, lokarri korapilodunen sare batez lotu zuten arretaz. Bukatu zutenean, gizonak ezin zuen ez esku ez hankarik mugitu ere egin, eta besteak orduan, euren emazteengana itzuli ziren. Indartsua une batean geldik geratu zen. Gero begiak itxi eta lokarrien aurka indarra egiten hasi zen. Izerdiak bekokia ildokatzen zion. Lepoko zain berez ere lodiak urdinak ziruditen eta azalaren aurka hantatuak bezala zeuden. Oso astiro, ia nekez ere, sorbaldekin mugimendu bat egiten hasi zen, kizkurtuz bezala. Lokarriek lerro gorri batzu uzten zizkieten haragi bizitan uzteraino harraskatu zuten lekuetan. Etsipenak jo zuen une batez, Arantxak ez zuela lortuko pentsatu zuen, baina juxtu une berean gizona bizi okertu zuen enborra eta, nola jakin gabe, beso bat askatzen zuela ikusi zuen. Jendeak txaloka ekin zion eta moztakak berriro pasatu zuen kapela, lagunak gainontzeko lokarrietatik bere burua askatzen zuen bitartean.

- Orain kateekin egin behar du froga -esan zuen Arantxak-, ikus dezagun nola lortzen duen kateetatik aske geratzea.

- Amarru bat baino ez da eta. Ez al zara konturatzan? Ea, goazemazu hemendik.

- Ikusi egin nahi dut ordea!

Andonik luzaro begiratu zion begietara. Azkenean, amore eman zuen.

Oraingoan estu-estu lotu zuten gizona kateekin. Zutik zegoen, ikusi gabe jendearen aurpegietara begira, beste bi gizon -lehengoek ez beste batzuk- kateen sendotasuna begizatzen zuten bitartean.

Gizonak bere gorputz osoarekin kateen aurka indar egiteari ekin zion. Labaindu eta modu zakarrean erori zen lurrera, eta trapa batekin batera

burniak harriaren aurka atera zuen hots zakarra entzun zen. Kalean eroritako panpin baten moduan zetzan geldik.

- Goazen hemendik -ia agindu zion Andonik sorbaldatik bultza eginez.

- Ikusi nahi dut -erantzun zion Arantxak sendo-, hemen gelditu eta lortzen duenentz ikusi nahi dut.

- Oraingoan ezingo du. Ez al duzu ikusten? Beste batzuk lagundu beharko diote.

- Ez dut uste.

- Hau zentzugabekeria bat da -Andonik, egonezinda-. Ez dut ulertzen zergatik egon behar dugun hemen zutik inozokeri honi begira.

- Begira! -eten zuen Arantxak-, mugitzen hasi da.

Gizona ezker-eskubi bihurtzen hasi zen. Ahuspez jiratu eta gorputz osoa erabat atezatuta, sugearen gisa narraztatzen hasi zen. Berriro zerura begira gelditu zen arte arroedatu zen asfaltoan eta orduan ezpainak odoletan eta begietan konzentrazio haserrekor eta amorratuaren erluzea antzeman ziezaizkiokeen.

- Nahi ez baduzu ez begiratu -erantzun zion Arantxak- itxi begiak eta kitto.

Baina berak bai so egiten ziola katez lotuta zetzan gizonari eta alaitasun bitxi bat sentitzen zuen. Bere gorputza nabaritzen zuen mugitzea, indarketa sotilaren erritmoaz atezaturik. Lehenik beso bat nabaritu zuen aske, eta ondoren, astiro, oso astiro, bestea; zutituz azkenik, hanka maztailduak tolestu zituen kateetatik ateratzea lortu zituen arte. Bere kideak kapela pasatzen zuen bitartean, gizona espaloiairen gainean eseri eta oin biak estiratzen hasi zen, ikusleengana barre arin bat jaurtiz. Arantxak begirada alderatu eta Andoniri begiratu zion. Andoni gizagaixoak ez zuen hau behin ere ulertuko. Hartzen zuen erabakia hartzen zuela, Andonik ez zuen behin ere ulertuko.

- Goazemazu hotelera afaltzera -eraso zion Andonik-. Hau bukatu da.

Etorri ziren bide beretik joan ziren eta lakuaren gaineko zubia igarotzerakoan, ilargi berria zegoe-la ikusi zuen Arantxak, eta urrutira, horizontean, mendien formak nabari zitezkeela. Han jarraitzen zuten eta Arantxak orduan ibaiaren emaria eta indarra sentitu zuen, umearekin batera, bere sabelean irabiatzen zen bizitza berri harekin batera.

Ereintza Elkarteak antolatuko "Errenteriako Hiria 1997eko XVII. Ipui Lehiaketako" Euskarazko 1. Saria.